DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko maiatzaren 7an izan zuen ohiz kanpoko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extraordinaria celebrada el 7 de mayo de 2020, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

***Juan Carlos Borboiaren dohaintzen ikerketari eta koroaren jardueren gardentasunari buruzko erakunde adierazpena.***

***Declaración institucional relativa a la investigación de las donaciones de Juan Carlos de Borbón y la transparencia de las actividades de la corona.***

*"Orain dela egun batzuk jakin zen Suitzako Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltza Saudi Arabiak Juan Carlos I.ari 100 milioi dolarren dohaintza egin ote zion eta hark, Errege emerituak, Corinna Larseni 65 milioi euroren dohaintza egin ote zion ikertzen ari zela.*

*"Hace unos días se conocía que de la Fiscalía Anticorrupción de Suiza estaba investigando una supuesta donación de 100 millones de dólares a Juan Carlos I por Arabia Saudí, así como una supuesta donación de 65 millones de euros del Rey emérito a Corinna Larsen.*

*Martxoaren 15ean ohar bat argitaratu zuen Errege Etxeak, eta, haren bidez, asmo hau azaldu zuen Felipe VI.ak: "Uko egitea Don Juan Carlosen jaraunspenetik niri neuri legokidakeenari, eta baita edozein aktibo, inbertsio edo finantza-egiturari ere, legearekin edo nire jarduera instituzionala eta pribatua arautu eta Koroaren jarduna eraendu behar duten zuzentasun eta integritate irizpideekin bat ez letozkeen jatorri, ezaugarri edo helburuei atxikitzen ez zaionari".*

*El día 15 de marzo, la Casa Real hacía pública un nota en la que el Felipe VI comunicaba su voluntad "de renunciar a la herencia de Don Juan Carlos que personalmente le pudiera corresponder, así como a cualquier activo, inversión o estructura financiera cuyo origen, características o finalidad puedan no estar en consonancia con la legalidad o con los criterios de rectitud e integridad que rigen su actividad institucional y privada y que deben informar la actividad de la Corona".*

*Era berean, ohar hartan jartzen zuen kendu egingo zutela Juan Carlos de Borboik Erregearen Etxeko aurrekontuetatik jasotzen zuen urteko*

*Igualmente, en esa nota se anunciaba la retirada de la asignación anual que Juan Carlos de Borbón venía recibiendo de los*

10740n XVII

*esleipena ere.*

*Estatuko Burutzaren erabaki horiek agerian uzten dute derrigorra dela Juan Carlos Borboi errege emerituaren jardueren erabateko gardentasuna.*

*Koroak, Estatuko Buruzagitza den aldetik, eredugarria izan behar du bere jardunetan, baina orain dela egun gutxi jakin ditugun gertakariak eredugarritasunaren aurkakoak dira, eta baita delituak ere, akaso. Hori dela eta, guk uste dugu lehenbailehen argitu behar direla errege emerituaren diruaz atera berri diren albiste horiek guztiak eta Felipe VI.ak haien gainean hartutako erabakiak. Eta, erabat argitzeaz gain, dagozkion erantzukizunak hartzeko ere eskatu behar da.*

*Horiek horrela, hauxe da Donostiako Udalak aurkeztutako*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*1. Donostiako Udalak Diputatuen Kongresuari ESKATZEN DIO ikerketa-batzorde bat ireki dezala gauza hauek ikertzeko: Saudi Arabiak Juan Carlos I.a errege emerituari 100 milioi euroren dohaintza egin ote zion, Suitzako Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltza ikertzen ari dena; lehengo erregeak Corinna Larseni 65 milioi euro eman ote zizkion, eta baita Juan Carlos I.ak zilegi ez den beste edozein jarduera egin ote zuen ere.*

*2. Donostiako Udalak Estatuaren aginte betearazle, legegile eta judizialari ESKATZEN DIE ikertzeko Saudi Arabiak Juan Carlos I.a errege emerituari 100*

*Presupuestos de la Casa del Rey.*

*Estas decisiones por parte de la Jefatura del Estado ponen en evidencia la necesidad de una transparencia total de las actividades del rey emérito Juan Carlos de Borbón.*

*La Corona, en calidad de Jefatura del Estado, debe ser ejemplar en sus actuaciones, y los hechos conocidos hace tan solamente unos días son justamente lo contrario a la ejemplaridad, pudiendo ser presuntamente delitos. Por este motivo consideramos que deben aclararse con urgencia todas las noticias recientes en relación con el dinero del rey emérito y las decisiones que ha tomado Felipe VI al respecto. Y, aparte del esclarecimiento por completo las mismas, debe exigirse la asunción de las responsabilidades correspondientes.*

*Por todos estos motivos, desde el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian presentamos la siguiente:*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL1.*

*1. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian INSTA al Congreso de los Diputados a abrir una comisión de investigación sobre la supuesta donación al rey emérito Juan Carlos I por parte de Arabia Saudi de 100 millones de euros que está siendo investigada por la Fiscalía Anticorrupción de Suiza, sobre la donación de 65 millones por parte del ex-monarca a Corinna Larsen, así como cualquier otra actividad de Juan Carlos I que pueda considerarse presuntamente ilícita.*

*2. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian INSTA a los Poderes ejecutivo, legislativo y judicial del Estado a investigar la supuesta donación realizada*

*milioi euroren dohaintza egin ote zion, Suitzako Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltza ikertzen ari dena; lehengo erregeak Corinna Larseni 65 milioi euro eman ote zion, eta baita, Juan Carlos I.ak zilegi ez den beste edozein jarduera egin ote zuen ere.*

*3. Donostiako Udalak botere betearazle, legegile eta judizial horiei berberei ESKATZEN DIE Koroaren jardueren erabateko gardentasuna bermatzeko behar diren aldaketak egin ditzatela".*
==========================

*al rey emérito Juan Carlos I por parte de Arabia Saudi de 100 millones de euros, así como la donación de 65 millones a Corinna Larsen, e igualmente a investigar el resto de actividades de Juan Carlos I que puedan considerarse presuntamente ilícitas.*

*3. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian INSTA a los mismos Poderes ejecutivo, legislativo y judicial a que lleven a cabo las modificaciones necesarias para garantizar la transparencia total de las actividades de la Corona."*
==========================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2020ko maiatzaren 27an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 27 de mayo de 2020

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**